Fundación CITA-alzhéimer Fundazioa Centro de Investigación y Terapias Avanzadas *Alzhéimer*

Beasaingo udala

Osakidetza

GOIERRI-UROLA GARAIKO ESI
OSI GOIERRI-ALTO UROLA

## BEASAINGO UDALA, CITA ALZHEIMER FUNDAZIOA ETA GOIERRI UROLA-GARAIKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUAREN ARTEKO ELKARLAN HITZARMENA

Beasainen, 2016ko abenduaren 28an

**Beasaingo Udala** sustatzaile modura eta bere ordezkari gisa Aitor Aldasoro Iturbe alkate jauna, Osakidetzak eta Goierri Urola-Garaiko Erakunde Sanitario Integratuaren eragin-eremuko Udalen artean sinatutako gizarte eta osasun-lankidetza markoaren babesean.

**Cita-Alzheimer Fundazioa** eta bere ordezkari gisa Joaquin Aperribay Elosua jauna. Fundazioak G20999421 IFK zenbakia du eta helbidea ondorengoa: Mikeletegi 71, beheko solairua, 20009 Donostia (Gipuzkoa).

**Goierri Urola-Garaiko Erakunde Sanitario Integratua** eta bere ordezkari gisa Teresa Garmendiak Tolosa (Zumarragako Ospitaleko zuzendari-gerentea), azaroaren 11kako 255/1997 Dekretuaren (Osakidetza erakunde publikoko gizarte-estatutuak onartzen dituena) 14 eta 15. artikuluek ematen dizkion eskumenez baliatuta,

## CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BEASIAN, FUNDACIÓN CITA-ALZHEIMER Y ORGANIZAICÓN SANITARIA INTEGRADA GOIERRI-ALTO UROLA

En Beasain a 28 de diciembre de 2016

El **Ayuntamiento de Beasain** y en su representación el Alcalde Sr. Aitor Aldasoro Iturbe, como promotor, dentro del "marco de coordinación sociosanitaria" suscrito por Osakidetza y los ayuntamientos del ámbito de influencia de la OSI Goierri-Alto Urola,

La **Fundación Cita-Alzheimer Fundazioa** con C.I.F. G20999421 y domicilio en Mikeletegi 71, bajo, 20009 San Sebastián (Guipúzcoa), representada por el Sr. D. Joaquin Aperribay Elosua.

Así como la **Organización Sanitaria Integrada Goierri-Alto Urola**, representada por la Directora-Gerente del Hospital de Zumarraga, Teresa Garmendia Tolosa, en virtud de las competencias que le son conferidas por los artículos 14 y 15 del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud

BEASAINGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BEASAIN
ALKATETZA
ALCALDIA

## ADIERAZTEN DUTE

**Lehenengoa:** Beasaingo Udalak ekimen bat martxan jarri nahi duela, Goiz Proiektua, hain zuzen; horretarako, beste hainbat erakunderen parte-hartzea behar du. Proiektu hau:

- Pertsonen eta gizartearen ongizatean oinarritzen da.
- Bi jarduketa-ardatzetan du eragina: arlo zientifikoan/asistentziazkoan eta gizarte-arretan.
- Herritarren parte-hartzea, eta lankidetza-ereduak eta kooperazioa sustatzen ditu hainbat aktoreren artean, tartean sartutako eragile gisa, erakundeekin batera lan egiteko etorkizun bat eraikitzeko helburuarekin: "Guztion arazo batek, guztion erantzuna behar du".
- Etorkizunera begiratzen duen inbertsio bat da, eta, gutxienez, 2019ra arte iraungo du eta horren ondorioz ere hitzarmen honen iraupena, 2019-06-01erarte izango da.

**Bigarren:** 2015. urteaz geroztik, Osakidetzak eta Cita Alzheimer Fundazioak Debako epidemiologia ikerketan batera lanean ari dira. Ikerketa horrek Eusko Jaurlaritzaren babesa dauka, Osasun Saileko kontseilariaren aginduaren bitartez; bertan zehazten da "Debako ikerketa Cita-Alzheimer Fundazioak sustatu eta diseinatutako proiektu bat da, zeinak batzen dituen ikerketa, osasun- eta gizarte-arreta, sentsibilizazioa, eta herritarren parte-hartzea STOP AZLHEIMER 2020 estrategiaren baitan. Estrategia honen

## MANIFIESTAN

**Primero:** Que el Ayuntamiento de Beasain quiere poner en marcha una iniciativa, el Proyecto GOIZ, para lo que se requiere de la participación de otras Organizaciones. Este Proyecto:

- Se centra en el Bienestar de las personas y de la sociedad.
- Incide en dos ejes de actuación, científico/asistencial y de atención social.
- Promueve, la participación ciudadana y, modelos de colaboración y cooperación entre diferentes actores, como agentes involucrados, en colaborar con las instituciones a construir un futuro: "Un problema de todos requiere una respuesta de todos".
- Se proyecta como una inversión que mira al futuro y que tendrá una duración de al menos hasta 2019 y en consecuencia la duración del presente convenio será hasta 1-06-2019.

**Segundo:** Que desde el año 2015, Osakidetza y Fundación Cita Alzheimer Fundazioa, vienen colaborando en el estudio epidemiológico Deba. Que dicho estudio cuenta con el apoyo del Gobierno Vasco ,mediante orden del Consejero de Salud en la que se establece que "El estudio Deba en un proyecto diseñado e impulsado por Fundación Cita-Alzheimer Fundazioa que une la investigación, la asistencia médica y social así como la sensibilización y participación ciudadana dentro de la estrategia denominada STOP ALZHEIMER 2020. Esta estrategia

BEASAINGO UDALA AYUNTAMIENTO DE BEASAIN ALKATETZA ALCALDIA

helburua da ikerketa zientifikorako egiazko laborategi bat sortzea Deban, osasun-eta gizarte-arlokoa; laborategi horretako aurkikuntza eta emaitzak berehala igorri ahalko dira Gipuzkoa osoko beste herrietara".

consiste en la creación de un autentico laboratorio de investigación científica, sanitaria y social en la localidad de Deba, cuyos hallazgos y resultados serán inmediatamente trasladables a otras localidades de todo Gipuzkoa".

**Hirugarrena:** Debako ikerketaren aurreko behaketek ondorioztatu dute Alzheimerraren eta fase goiztiarrean dauden bestelako dementzien diagnostikoa eta tratamendua hobetzera zuzendutako ekintzak martxan jarri behar direla.

**Tercero:** Que las observaciones preliminares estudio Deba, sugieren la puesta en marcha de intervenciones dirigidas a intentar mejorar el diagnóstico y tratamiento de la enfermedad de Alzheimer y otras demencias en fase temprana.

**Laugarrena:** Deba Proiektuak adierazten du Udalaren, Osakidetzaren eta Cita Alzheimer Fundazioa bezalako elkarte baten arteko lankidetza bide ona izan litekeela helburu horiek lortzeko.

**Cuarto:** El proyecto Deba ha puesto de manifiesto que la colaboración de agentes como Ayuntamiento, Osakidetza y una Organización como Fundación Cita Alzheimer puede ser una vía para la consecución de estos objetivos.

**Bosgarrena:** Deba Ikerketarekin jarraitzeko, ikerketa berri bat zehaztu da ardatz zientifikoa-asistentziazkoa lantzeko, GOIZ Proiektuaren baita "Herritarren jarduera-eredua Alzheimerra eta bestelako dementziak goiz hauteman eta tratatzeko" izenpean, eta dokumentu honi erantsi zaio A eranskina gisa.

**Quinto:** Que como continuidad al Estudio Deba, se ha definido un nuevo estudio, para comenzar a abordar el eje científico asistencial, dentro del marco del Proyecto GOIZ, denominado " Modelo de actuación ciudadana para la prevención, detección y tratamiento temprano de la enfermedad del Alzheimer y otras demencias" y que se anexa a este documento como Anexo A- .

Horregatik guztiagatik, alderdiek

Por lo expuesto, las Partes

**ERABAKI DUTE**

**ACUERDAN**

1. Lan-talde bat osatzea; hauek osatzen dute:
   - Cita-Alzheimer Fundazioaren zuzendari zientifikoa eta proiektuarekiko izendatutako pertsonak.
   - Goierri Urola-Garaiko ESIko zuzendaritza medikoa, edo eskuordetutako pertsona.
   - Zumarragako Ospitaleko Neurologia Zerbitzuko espezialistak
   - Beasaingo Lehen Arretako

1. Constituir un grupo de trabajo formado por:
   - El Director Científico y las personas asignadas al Proyecto de Fundación Cita-Alzheimer.
   - La Dirección Médica de la OSI-Goierri-Alto Urola, o persona en quien delegue.<z
   - Los facultativos especialistas del Servicio de Neurología de Hospital de Zumarraga
   - El Jefe de la Unidad Atención

BEASAINGO UDALA AYUNTAMIENTO DE BEASAIN ALKATETZA ALCALDIA

- Unitateko burua
- Alkatea eta Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Arloko arduraduna.

2. Aipatutako lan-taldeari agintzea "Herritarren jarduera-eredua Azlheimerra eta bestelako dementziak goiz hauteman eta tratatzeko" ikerketa hedatzea eta jarraipena egitea.

Primaria de Beasain.

- El Alcalde y la responsable del área de Bienestar Social del Ayuntamiento de Beasain.

2. Encomendar al referido grupo de trabajo el despliegue y seguimiento del estudio "Modelo de actuación ciudadana para la prevención, detección y tratamiento temprano de la enfermedad del Alzheimer y otras demencias"

## BETEBEHARRAK

1. Beasaingo Udalak martxan jarriko du parte-hartzaileei zuzendutako bulego bat; horretarako, langileak kontratatuko ditu eta lokalak egokituko ditu, beharrezko azpiegiturarekin hasierako balorazioa egiteko eta arrisku-maila baloratzeko. Kontratatutako pertsonen formazioa nahiz zuzendaritza eta lanen ikuskapena CITA Fundazioko langileek egingo dute.

2. Goierri Urola-Garaiko ESIak onetsi du Beasaingo Osasun Zentroko Lehen Arretako medikuek parte-hartzaileak bidaltzea CITAko hondatze kognitiboan espezializatutako kontsultara, betiere aipatutako ikerketan parte hartzeko aurre-hautaketako baldintzak betetzen badituzte, eta gaixoek edo beraien legezko ordezkariek baimena ematen badute.

Era berean, onetsi dute Beasaingo Osasun Zentroko Lehen Arretako medikuek CITA Fundazioan arreta jaso duten gaixoak baloratzea, ondoren jarraipena ESIko Neurologia Zerbitzuko espezialistek egin dezaten.

## OBLIGACIONES

1.l Ayuntamiento de Beasain pondrá en funcionamiento una oficina de atención a los participantes, mediante la contratación del personal necesario y la adecuación de los locales con la infraestructura precisa para llevar a cabo las tareas de valoración inicial de cribado y estimación de índice de riesgo. La formación de los contratados así como la dirección y supervisión de las tareas serán realizadas por el personal de Fundación CITA.

2. La Organización Sanitaria Integrada Goierri-Alto Urola aprueba que los médicos de Atención Primaria del Centro de Salud de Beasain, puedan derivar a la consulta especializada en deterioro cognitivo de CITA a todos los participantes que acudan a sus consultas, cumplan los criterios de pre-selección para participar en el citado estudio y así lo consientan expresamente los pacientes o sus representantes legales.

Asĺ mismo, aprueba que los médicos de Atención Primaria del Centro de Salud de Beasain, valoren a los pacientes atendidos en la Fundación CITA para su posterior seguimiento o derivación a los Especialistas del Servicio de Neurología de la OSI.

BEASAINGO UDALA AYUNTAMIENTO DE BEASAIN ALKATETZA ALCALDIA

3. Goierri Urola-Garaiko ESIak onetsi du Neurologiako espezialistek Lehen Arretako Unitatetik igorritako pertsonei arreta ematea, aipatutako ikerketaren testuinguruan; baita kasu bakoitzean CITAtik egindako aholku eta gomendioak baloratzea ere.

4. CITAk bere ikertzaileei baimena ematen die screening prozesua formatu, zuzendu eta gainbegiratzeko; baita aipatutako ikerketan parte-hartzen duten pertsonak baloratzeko ere. Ikertzaileek, CITAko medikuek, honako hau egingo dute:

- Parte-hartzaileei eman beharreko informazioa koordinatu eta gainbegiratzea, eta onespena lortzea.
- Neurologia Kontsulta.
- Garuneko Erresonantzia Magnetikoa.
- Neuropsikologia Kontsulta, eta testak eta galdeketak ematea.
- Medikuaren txostena egitea kontsulten emaitzekin.

5. Honako hauek aintzat hartu dira: datu pertsonalen babeserako indarrean dagoen legeria; abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa; eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, Segurtasun Neurrien Araudia onesten duena. Horiei jarraikiz, tratamenduaren edozein fasetan datu pertsonalak ikertzen dituztenek, horiei buruzko sekretu profesionala gorde beharko dute. Hori bete dadin, CITAk eta Goierri Urola-Garaiko ESIko ikerketa lan-taldeko kideek KONFIDENTZIALTASUN ETA SEKRETUA bete eta errespetatu beharko dute.

3. La OSI Goierri-Alto Urola aprueba que los médicos especialistas de Neurología atiendan a las personas que les sean derivados desde las Unidades de Atención Primaria en el contexto del citado estudio y valorar las recomendaciones y sugerencias hechas desde CITA en cada caso.

4. CITA autoriza a sus investigadores a formar, dirigir y supervisar el proceso de screening así como a evaluar a los participantes en el citado estudio. Los investigadores, personal médico de CITA llevarán a cabo los siguientes procedimientos:

- Coordinación y supervisión de la información a los participantes y, obtención del consentimiento informado.
- Consulta de Neurología.
- Consulta de Neuropsicología y administración de test y cuestionarios Resonancia Magnética Cerebral.
- Elaboración del informe médico correspondiente con los resultados de las consultas.

5. De conformidad con la legislación vigente en materia de protección de datos personales, ley Orgánica 15/1999, de 13 de Diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y Real Decreto 1720/2007, de 21 de Diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Medidas de Seguridad, quienes investigan en cualquier fase del tratamiento de los datos de carácter personal están obligados a guardar la máxima reserva y secreto profesional respecto do los mismos y tienen el deber de guardarlos. A tales efectos, CITA y OSI Goierri-Alto Urola y los integrantes del equipo de trabajo de Investigación vienen obligados a cumplir y respetar el

DEBER DE CONFIDENCIALIDAD Y SECRETO.

6. Lan-taldeak lortutako emaitzak, CITA eta Goierri Urola-Garaiko ESIaren arteko lankidetzatik sortutakoak, batera argitaratuko dira, baina ikerketan parte hartu duten pertsonen datuak agerian jarri gabe. Argitalpenean egile gisa bi erakundeetako ikerketa-taldeko kideak agertuko dira. Ez da aurreikusten jabetza intelektualeko edota industrialeko (P1) eskubideak sortzea, akordio honetatik sortutako emaitzengan.

6. Los resultados de la investigación realizada por el Grupo de Trabajo como consecuencia de la colaboración entre CITA y OSI Goierri-Alto Urola serán publicados conjuntamente por ambas partes, sin que, en ningún caso, figuren datos personales relativos a las personas que hubieran participado en el estudio. En las publicaciones a las que dé lugar la colaboración figuraran como autores miembros de los equipos de investigación de ambas instituciones. No se prevé que se generen derechos de propiedad intelectual y/o industrial (P1) sobre los Resultados derivados del presente acuerdo.

Sinatuta / Fdo: Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo Udalaren Alkatea /Alcalde del Ayuntamiento de Beasain

BEASAINGO UDALA AYUNTAMIENTO DE BEASAIN ALKATETZA ALCALDIA

Sinatuta/ Fdo: Joaquin Aperribay Elosua CITA –Alzheimer Fundazioa / Fundación CITA –Alzheimer

Sinatuta / Fdo: Teresa Garmendia Tolosa Goierri Urola-Garaiko ESIko zuzendaria / directora Organización Sanitaria Integrada Goierri-Alto Urola